

VITORIA-GASTEIZEN URAREN KUDEAKETA AZTERTUZ



zenbat litro kontsumitzen duten batez beste pertsonako eta eguneko. Fakturan beren kontsumoa "efizientea" den begiratzen dutela diotenen portzentajea %58,2koa da.

- Uraren prezioa "bidezkatat" jotzen da elkarrizketen %49an, "altua" %42an, eta %9k, berriz, "baxutzat" jotzen dute.
- **%82,3k "oso ontzat" edo "ontzat" jotzen du Uraren Zerbitzu Integralaren kalitatea Vitoria-Gasteizen;** hala, portzentaje horrek 2,8 puntu egin du gora 2015arekiko. Kasuen %60,3k adierazten duenez, konfiantza "handia" edo "dezente" dauka Zerbitzuaren egungo kudeaketan.
- Inkestatutako pertsonen %62 Vitoria-Gasteizko uraren kudeaketari dagokion guztiari buruz "nahikoa informatuta" daudelakoan daude. %32k adierazi dute gutxi dakitela gaiari buruz.
- Hona hemen uraren kudeaketan garrantzitsuentzat eta lehenetsuentzat jotzen diren lau alderdiak: uraren balioari buruzko heziketari eta sentsibilizazioari eustea; estolderian egiten diren isurketa kutsatzaileak eta ihesak murriztea; azpiegitura berrietan inbertitzea eta hondakin uren arazketa hobetzea.

Datuok ikusita, AMVISAK bere lanean herritarrek jartzen duten konfiantza eskertu nahi du; era berean, hiriarekin hartua duen konpromisoa eta zerbitzuaren kalitatearen alde egindako apustua berresten ditu.

Oraintsu, Uraren Zerbitzu Integralari lotutako gaien inguruan **herritarrek zer pertzepzio eta zer iritzi duten jasotzeko azterlan berri bat** egin da Vitoria-Gasteizen, AMVISAK eskatuta. Hona hemen egindako 600 inkestetik atera diren emaitza nagusiak:

- Ura eraginkorki kudeatu beharri buruzko kezka pertsonalaren mailak gora egiten jarraitzen du, 1etik 10era bitarteko eskalan 7,86 puntutan jartzeraino.
- **%90,7k diote etxean iturriko ura edateko ohitura dutela.** Uraren kalitateari buruzko pertzepzioak hobera egin du; uraren kalitatea "oso" edo "dezente" ontzat jotzen dute erantzunen %94k (zaporea), %96k (usaina) eta %97k (kolorea).
- Hamar pertsonatik ia zortzik "normalizat" jotzen dute beren ur kontsumoa; hala ere, inkestaturen erdiek ez dakite esaten etxean

ADMINISTRAZIO KONTSEILU BERRIA

Joan zen ekainaren 28an, Udaleko Osoko Bilkurak AMVISAKo Administrazio Kontseilu berria izendatu zuen, eta uztailaren 3an lehendakari eta lehendakariorde karguak finkatu ziren. Honako hauek osatuko dute Kontseilua:

- Cesar Fernandez de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV), *lehendakariordea*
- Amaia Barredo Martin andrea (EAJ-PNV)
- Miren Fernandez de Landa Ruiz andrea (EAJ-PNV)
- Felipe Garcia Miravalles jauna (PSE-EE), *lehendakaria*
- Jose Manuel Bully Espinosa jauna (PSE-EE)
- Amancay Villalba Eguluz andrea (EH BILDU GASTEIZ)
- Josu Encina Iñiguez de Ciriano jauna (EH BILDU GASTEIZ)
- Alfredo Iturricha Yaniz jauna (PP)
- Gustavo Anteparra Benito jauna (PP)
- Gema Zubiaurre Urquiri andrea (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)



Gogoan eduki!

URAREN KUDEAKETAREN PRAKTIKA ONEN MULTZOA

5 GOMENDIOAK: UDAN URA NOLA ERABILI

Udan ugaritu egiten da uraren erabilera jolas eta aisia jardueretan, eta gure kontsumo ohiturak aldatu egin daitezke beroaren eta eguraldi onaren ondorioz. Udako hiletan, urtearen gainerako zatian bezala, efizienteak izan gaitzke.



✓ Igerileku eta kirol guneeetan, **instalazioak ondo erabiltzeko jarraibideak errespetatu.** Ura alperrik ez galtzeko eta kontsumo guneak egoki mantentzeko aholkuak bete.

✓ Berdegunerik edukiz gero, **modu efizientean ureztatzeko** praktikei jarraitu: ureztatu aurretik, eguraldiaren iragarpena kontsultatu; goizeko lehen orduak aprobetxatu eta ezinbestekoa dena bakarrik ureztatu. Gainera, kontuan hartu motzegi ebakitako zelai batek okerrago atxikitzen diola hezetasunari eta lehenago lehortzen dela.

Gogoratu! Udan gaude; normala da lorategiak ez egotea horren berde

✓ **Hozkailuan nahikoa ur hotz eduki.** Litro asko alperrik galtzen da iturriko ura fresko etorri arte urari joaten eta joaten utzita.

✓ **Zaindu dutxatzeko denbora.** Baliteke maizago dutxatu behar izatea, baina dutxa laburrak izan daitezela.

✓ **Erme ibili ureztatzeko mahukarekin!** Ez da kontsumo efizientearen aliaturik onena. Ez erabili denerako: ureztatzeko, freskatzeko, patio eta terrazak garbitzeko, autoa garbitzeko...

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org

